Ustelkeriari eta eroskeriari dagokienez, Jokabide Kodean ezartzen da erabat debekatuta dagoela hirugarrenengandik opariak jasotzea eta/edo hirugarrenei opariak eskaintzea, baldin eta, duten balioagatik, kortesia baino gehiago den oparizat har badaiteke eta tratamendu pertsonal mesedegarria edo Copreci Taldeko edozein enpresarentzako tratamendu mesedegarria lortzeko egiten bada. Halaber, Copreci Taldeko konpainiek hautagaiak eta alderdi politikoak ezin dituztela finantzatu adierazten du, eta erabat debekatuta dagoela funts eta kreditu publikoak eskuratzea Plangintza eta Baliabide Sailaren alde aurreko baimenik gabe.

Kapital zuritzeari dagokionez, transakzio orok kontabilitate mailan egon behar duela zehazten da. Bestalde, transakzio orok dagokion kopia izan behar du, edozein unetan kontsulta daitekeena eta transakzioaren egileak eta transakzioa egitea baimendu, grabatu eta artxibatu zutenak identifikatzeko aukera ematen duena.

2025ean ez da ustelkeriarekin, eroskeriarekin edo kapital zuriketarekin lotutako auzirik tratatu. Eta urtean zehar prebentzio ekintzak gauzatu dira, hala nola gure Jokabide Kodearen arabera oparirik ez onartzeko politika jakinaraztea.

4

Arduratsuak planetarekin

Zirkulartasunaren inguruko aukerak garatzen ditugu, eraldaketa baliabideen aprobetxamendua maximizatzen duten proiektuetara gidatuz.



Coprecin ez dugu soilik ingurumen inpaktua minimizatzeko lan egiten, eredu ekonomiko eraginkor eta iraunkorrago bat ere bultzatzen dugu, egungo beharrekina eta etorkizuneko erronkekin lerrokatuta.

Gure asmoa da baliabide naturalak (energia, ura eta sortutako hondakin guztiak) modu eraginkorrean eta zirkularrean kudeatzea, eta beren bizi ziklo osoan material jasangarrien erabilera sustatzea, araudiak betetzen dituztela eta haietara egokitzen direla ziurtatuta eta gure bezeroek ingurumen gaitan dituzten eskakizunak kontuan hartuta.

Ingurumena kudeatzeko sistemei buruzko ISO 14001 arauaren bidez kudeatzen dugu ingurumenean dugun inpaktua. Arau horren arabera ziurtagiria dute Aretxabaletan, Zaragozan eta Turkian ditugun ekoizpen plantek.

Ingurumenarekin lotutako hainbat erronka ditugu aurrean, eta horietako batzuetarako programa espezifikoak ditugu diseinatuta. Programa horiei esker Coprecirako lehentasunezkoak diren ingurumen gai batzuetan jar dezakegu fokua, esaterako, hauek:

- Zirkulartasunaren eta baliabideen kudeaketa eraginkorraren inguruko aukeren garapenean aurrera egitea
- Hornidura kate arduratsua garatzea
- Substantzia kezkagarrien kudeaketa
- Deskarbonizazio plana
- Eraginkortasun energetikoko plana
- Produktu jasangarria garatzeko aukerak

4.1

Hornidura kate eraginkorra, zirkularra eta jasangarria

4.1.1. Hornidura kate arduratsua

Gure hornidura katean ESG irizpideak aplikatzen aurrera egiten ari gara

Coprecin gure bezeroentzako erreferentziazko hornitzaile izan nahi dugu. Horretarako, gure hornitzaileen hornidura kateak integratzen ari gara, segurtasunaren eta osasunaren, giza eskubideen errespetuaren, ingurumenaren, etikaren eta osotasunaren arloko gure balioekin eta eskakizunekin loturaturik.

Coprecin Ikuspegi Estrategikoarekin lan egiten dugu, eta ikuspegi horrek aukera ematen digu erosketa kategoriaz guztietan gure estrategiak prestatzeko eta berrikusteko, eta epe ertainerako eta luzerako lan ildoak definitzeko, hornitzaile estrategikoak aukeratzeko, proiektu berriei heltzeko modua definituta eta kokatuta gauden eskualdeetarako aukerarik hoberenak bilatuta, eta ikuspegi horren zati bat gure hornitzaileen interes taldearekin partekatuta.

Hornitzaileen eta Materialen/Tekniken Arrisku Azterketa indartzen dugu, ikuspegi globalarekin, eta Arriskuaren Kudeaketa Aktibo hori lan egiten dugun merkatu globalean beharrezkoa den aurrerapenerako, malgutasunerako eta egokitzapenerako baliotzat hartzen dugu.

Eraldaketa digitala lantzen jarraitzen dugu, gure hornitzaileekiko komunikazioa optimizatzeko, informazio fluxu egokienak diseinatzeko, eta datuaren digitalizazioaren bidez hornidura katea ezagutzeko.

Bezeroarengandik hurbilen dauden balio kateak erregionalizatzen ditugu, ez malgutasun eta hurbiltasun irizpideetatik soilik, baita ingurumenaren gaineko inpaktuak murrizteko eta balio gehiago sortzen lagundu ahal izateko ere. Hurbileko Aliatu Sarea izatea, arriskua egokitzeko eta murrizteko moduan jardutea.

2025ean, Mondragon Korporazioaren laguntzarekin, gure hornidura katearen ezagutza urratsak egiten jarraitzen dugu, ESG irizpideekin, hobekuntza arloak identifikatzea ahalbidetuko digun diagnostiko bat bilatzeko, gure hornitzaile nagusiek jasangarritasunean hobekuntza bilatzen duten funtzionamendu modu batzuetara jo dezaten. Urteko aurrerapenerako bat Copreciko erosketa jasangarrien politika definitzea izan da, hornidura kate jasangarriago bat eraikitzeke abiapuntu gisa.

Aurrera egiten dugu CBAM (Carbon Border Adjustment Mechanism) araudi berriaren ezagutza, Copreciko jardueran izan dezakeen eragina aztertuz, horri esker araudia betetzeko etorkizunerako estrategia egokiena definitu ahal izango dugu, eta, aldi berean eraginkorrak izanda eta emisioen eragin hori minimizatzea bilatuta.

4.1.2. Hornidura Kateko Material, Produktu, Sistema eta Zerbitzuen Kalitatea eta Fidagarritasuna

Kalitatea eta berrikuntza bateratzen dituzten produktu eta zerbitzuak, gure bezeroen behar berezietara egokituta

Copreci Taldearen produktuek bermeak dituzte segurtasunaren arloan, eta berme bat dute erabilerarako fidagarritasunaren arloan. Gure produktu eta sistemen ezaugarriak izan dira fidagarritasuna, efizientzia eta jasagarritasuna izan dituzte ezaugarri, gure bezeroek eta merkatuak aitortu dituztenak. Kalitate sendo eta lehiakor baten alde lan egiten dugu, garapenetatik hasita, hornidura katea landuz, eta gure bezeroak hornitu arte.

Coprecik 4.0 industria baten aldeko apustua egin du, interkonektibitatean, ikaskuntza automatizatuan eta produkzio prozesuetako denbora errealeko datuetan oinarrituta. Datuen erabilera intentsiboaren aldeko apustuak aukera ematen digu digitalizazioari eta automatizazioari baldintza hobeetan aurre egiteko, produkzio-prozesuen kostuan, kalitatean eta eraginkortasunean optimizatzeko. Horrek, hondakin gutxiago sortzea eta baliabideak hobeto aprobetxatzea eragingo du.

Copreci Taldeak "Bezeroen Kudeaketa Operatiborako" prozesu esparru bat du. Bere helburua bezeroei arreta emateko prozesuan erabili beharreko metodologia bat ezartzea da, bere proiektuetan parte hartuz, bere estrategietan lankidetzat estua bultzatuz eta saldu osteko zerbitzua emanez.

Gure bezeroak eta azken erabiltzaileak gogobetetzea gure balio korporatiboetako bat da. Copreci Taldeko lantegi guztiek erreklamazioak kudeatzeko eta tratatzeko barne prozesu bat dute. Prozesu horren bidez, etengabeko hobekuntza eta kalitatean, fidagarritasunean, iraunkortasunean, segurtasunean eta, azken batean, erabiltzaileen eta kontsumitzaileen gogobetetasunean eragin handiagoa izatea lantzen dugu.

2025ean MES sistema bat (Manufacturing Execution System) ezartzen jarraitzen dugu. Sistema horrek aukera ematen du denbora errealeko ekoizpen prozesuak kudeatzeko eta optimizatzeko, eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko. Aretxabaletako plantako ataletako batean ezarri da, eta atal guztietan ezartzearen aldeko apustu irmoa egiten dugu, prozesu industrialen Digitalizazioaren bidez bikaintasun operatiboa maximizatzeko.



4.1.3. Baimendu gabeko Substantziarik ez duen Hornidura Katea


Baimendu gabeko sustantziarik ez duen hornidura katearen alde ari gara

Gure lehentasunezko interes taldeekin gardentasun harremana izaten laguntzen dugu, eta legediak eta gure bezeroek debekatutako material arriskutsuak eta/edo debekatuak ezabatzea bultzatzen dugu.

Materialak behar bezala kudeatzea eta pertsonen ongizatea eta ingurumena bermatzea eta gure produktuekin eta/edo jarduerekin haiengan eragin negatiborik ez dugula sortzen ziurtatzea da helburua. Horretarako, horrelako materialak edo substantzia kaltegarriak kudeatzeko moduari buruzko jarraibideak ematen dituzten hainbat araudi eta/edo legetan oinarritzen gara, eta zaintzarako eta betetzea kontrolatzeko prozesu bati jarraitzen diogu.

Besteak beste, eta bereziki konplexutasun handiko osagaietan, hala nola osagai elektronikoetan, plataforma digital integralak erabiltzen ditugu laguntza gisa, ingurumen araudiak eta nazioarteko estandarrak ere - REACH, RoHS edo POPak, esaterako- betetzen laguntzen baitute.

Nabarmendu behar da gaur egun maila altuagoko helburu korporatiboak daudela material arriskutsuak eta debekatuak ezabatzea bultzatzen duten proiektuekiko.



4.1.4. Baliabideen kudeaketa eraginkorra eta zirkularra

Ingurumena kudeatzeko sistema abiapuntu hartuta, baliabideen kudeaketa eraginkor eta zirkularrarekin lotutako erronka berriak ditugu aurrean, eta, horiei aurre egiteko, hornidura kate osoko hondakinak murrizten eta birbalorizatzen ditugu, hondakin arriskutsuak gutxitzen ditugu edo programa espezifikoak aktibatzen ditugu, hala nola Eraginkortasun energetikorako plana edo Deskarbonizazio plana.

Copreciko plantetan hainbat ekintza egiten ditugu baliabideen kudeaketa eraginkor eta zirkularrean aurrera egiteko.

Ura

Copreci taldearen jarduerak ez du ur asko kontsumitzen ekoizpen prozesuan, baina, hala ere, beti saiatzen gara kontsumoa murrizteko zerbait egiten. Adibidez, 2025ean, Aretxabaletan hozte dorreetan mantentze lanak egiteko modua aldatu zen, deposituak hustu beharrik gabe egiteko. Neurketa ere funtsezkoa da, adibidez, Txinako planta 2025ean hasi zen ur irteerak neurtzen, operazioetan kontrol handiagoa izateko.

Enbalaje kontsumoak

Kontsumo hau murrizteko aukerak identifikatzen jarraitzen dugu aktiboki, batez ere enbalajeen berrerabilpenean. Esaterako, planten arteko ekintzen bidez, Turkiako plantaren kasuan bezala, izan ere, 2025ean hasi dira Aretxabaletan dugun planta nagusitik iristen zaizkien lehengai kutxak erabiltzen beren azken produktua enbalatzeko. Bezeroei zuzendutako ekintzen bidez. Esaterako, 2025ean itzul daitezkeen enbalajeen fluxu berriak aztertu dira bezeroekin. Baita hornitzaileekiko ekintzen bidez ere, enbalajeen edukiera handitzen duten proiektuekin, palet bakoitzean garraiatutako osagai kopurua handitzeko.

Hondakinak

Taldeko hainbat plantatan, hondakinen barne bereizketa eta kudeaketa hobetzera bideratuta egon dira ekintza nagusiak, hondakinei bukaeran tratamendu egokiagoekin eta, ahal den neurrian, berreskuratzeko tratamenduekin hobeto kudeatzen errazteko.

Izan ere, Coprecin hondakinen ehuneko handi bati (%90 baino gehiago) ematen zaio **berrerabiltzeko tratamendu** bat bukaeran. Baina, gainera, zirkuitu zirkular eta eraginkorrak ditugu gure hornitzaileetako batzuekin; beraz, hondakinak eta, bereziki, lehengai kritiko batzuen, esaterako, aluminioarena eta letoiarena, jatorrizko hornitzailearengana itzultzen dira, hark lehengai gisa txertatzeko.

Energia kontsumoa

Eraginkortasun energetikoaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu. Alde batetik, Eraginkortasun Energetikoaren Batzorde berri bat dugu Aretxabaletako plantan, eraginkortasun energetikoaren plan batekin, non energia kontsumoa murrizteko urteko helburuak dauden. Aurtun, kontsumoak monitorizatzeko sistema zehatza ezartzea izan da mugarririk handiena. Sistema horrek hobekuntza ekintzei ekiteko ikuspegi egokia emango digu. Gainera, 2025ean argi berdea eman zaio autokontsumorako proiektu baten ezarpenari.

Bestalde, Txekiako plantan eraikinei itzala egitearekin edo building shadowing deiturikoarekin lotutako ekintzen aldeko apustua egiten jarraitzen dute eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko.

Mexikoko plantan makinako energia kontsumoaren monitorizazioa hobetzen jarraitzen dute. Eta, era berean, aire egokitu tradizionalak baino kontsumo txikiagoa duen hozte sistema berria inplementatu zen.

Azkenik, nabarmendu behar da produktu, sistema eta zerbitzuen garapen berrietan, erabilitako baliabideen optimizazio kontzeptua integratzen dugula.

Jarraian ingurumen baliabideen kudeaketaren datuak erakusten dira. Aipatu behar da ingurumen emaitzak salmenten bilakaerarekin oso lotuta daudela, eta horretan %5 inguruko igoera egon den talde mailan.

Hondakinen kudeaketa

2025ean, **%4,6 hondakin gutxiago sortzea lortu da oro har**, 2024. Urtean sortutakoekin alderatuta, eta murrizketa hori hondakin arriskutsuetan zein ez-arriskutsuetan gertatu da.

Azpimarratzekoa da amaieran errekuperazio tratamendura doan hondakin portzentajeak oso altua izaten jarraitzen duela, % 91,5ekoa.

	Kantitateak 2025ean (t)	%, 2025eko guztizkoarekiko	Kantitateak 2024an (t)	%, 2024ko guztizkoarekiko	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
HONDAKINAK, guztira	4.319	%100	4.527	%100	-%4,6
Hondakin motaren arabera banaketa					
HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK, guztira	3.796	%88	3.953	%87	-%3,9
HONDAKIN ARRISKUTSUAK, guztira (t)	523	%12	574	%13	-%8,9
Azken tratamenduaren arabera banaketa					
BERRESKURATUTAKOA, guztira (t)	3.952	%91,5	4.206	%93	-%6
SUNTSITUTAKOA, guztira (t)	366	%8,5	321	%7	%14

Lehengaiak eta enbalajea

Jarraian, Copreci Taldean gehien kontsumitzen diren lehengaien kontsumoak aurkezten dira, bai eta enbalajeen kontsumoak ere.

Lehengai nagusien kontsumoa, tona metrikoetan (t)

Osagaiak berreskuratu eta berrerabiltzeko prozesuei eta letoizko eta aluminiozko txirbilaren birsalmentari esker, gure lehengai nagusien kontsumoaren inpaktua txikitzea lortu dugu.

Letoiaren eta aluminioaren arteko aldakuntzek erakusten dute etxetresna elektrikoek osagaien merkatuan aluminizaziora jotzen ari dela.

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
Letoi kontsumoa GUZTIRA (t)	969	1.047	-%7,4
% birziklatua	%87	%90	-%3
ALuminio kontsumoa GUZTIRA (t)	4.207	3905	%7,7
% birziklatua	%59	%61,8	-%2
Altzairu kontsumoa GUZTIRA (t)	1.299	1.045	%24,3
% birziklatua	%0	%0	-

Enbalajeen kontsumoa, tona metrikoetan (t)

Talde gisa, enbalajeen kontsumoa murrizteko formulak bilatzen jarraitzen dugu. Urtean hainbat ekimen jarri ditugu abian, baina beste faktore batzuek, hala nola salmenten konposizioak (tamaina handiagoko edo txikiagoko produktuak) edo salmenta merkatuek, guztizko kontsumoen bilakaera markatu dezakete.

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
Paper eta kartoi kontsumoa GUZTIRA (t)	956	853	%12
% birziklatua	%75	%74	%2,3
Egur kontsumoa GUZTIRA (t)	857	937	-%8,5
% birziklatua	%0,55	%0,34	%61
Plastiko kontsumoa GUZTIRA (t)	100	101	-%1
% birziklatua	%85	%82	%3,7

Energia kontsumoak

Elektrizitatea

Taldearen kontsumo elektrikoak %9,6 egin du gora. Igoera hori oso lotuta dago 2025eko salmenta globalen hazkundearekin.

Dena dela, erabat konbentzituta gaude eraginkortasun energetikoa dela etorkizun jasagarria lortzeko funtsezko erronketako bat. Horregatik, eraginkortasun energetikoaren batzordea aktibatu ugu Aretxabaletako plantan, taldean kontsumo handiena duen planta baita, eta 2025ean monitorizazio sistema bat ezarri dugu bertan.

Era berean, 2026an jatorri berriztagarriko elektrizitatearekin lotutako 2 proiektu ezartzen amaituko dira: Autosorkuntzako proiektu 1 (Carolinas proiektua, Espainian) eta autokontsumoko 1 (Aretxabaletako plantako instalazioetan panel fotovoltaikoak ezartzeko proiektua). Bi proiektu horiek, kalkuluen arabera, Aretxabaletako plantako kontsumo elektrikoaren %9 eta %11 artean sor dezakete.

Laburbilduz, eraginkortasun energetikoko ekintzak egiten ari gara talde mailan, eta datozen urteetan horien fruituak ikustea espero dugu.

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
Jatorri Ez-berriztagarriko elektrizitatearen kontsumoa (kWh)	23.493.142	17.781.319	%32
Jatorri berriztagarriko elektrizitatearen kontsumoa (kWh)	5.356.185	8.523.537	-%37
% berriztagarria	%18,5	%32	-%42
Kontsumo elektrikoa guztira (kWh)	28.849.327	26.304.856	%9,6

Gas naturala

Elektrizitatea bezala, gas kontsumoa da funtsezko beste puntu bat. Kasu honetan, gas naturalaren kontsumoa aurreko ekitaldikoa baino %1,9 txikiagoa izatea lortu dugu.

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
Gasa naturala (kwh)	7.061.566	7.184.669	-%1,7

Ura

Ur erauzketa %6,7 murriztu da.

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
Ur ateratzea, iturriaren arabera, estres hidrikoko eremuak EZ diren lekuetan	21.825	23.712	-%7,9

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
Ur ateratzea, iturriaren arabera, estres hidrikoko eremuak diren lekuetan (MX, TR)	8.693	9.021	-%3,6

Ur ateratzea guztira (m³)	30.518	32.733	-%6,7
---------------------------	--------	--------	-------

4.2 Klimarekiko konpromisoa

Klimarekoko konpromisoa, anbizio handiko deskarbonizazio plan batean islatua

Klima aldaketaren urgentzia onartzen dugu. Hobeto ulertzen ari gara gure jardueren gure balio kateetan egiten duten BEGen zeharkako emisioak (1, 2 eta 3 irismeneko emisioak ere deitzen zaie). Kalkuluak adierazten duenez, gure 3 irismeneko emisio gehienak eskuratzen ditugun lehengaien isurketekin lotuta daude, bai eta gure produktuen erabileraren ondorioz eta haien bizitza baliagarriaren bukaeran ematen zaien tratamenduaren ondorioz gertatzen diren isurketekin ere.

Urte batzuetatik hona **Carbon Disclosure Project (CDP)** proiektuan parte hartzen dugu. Ingurumen dibulgazioari (bereziki klimatikoa) buruzko ekimen bat da, eta industriari eta gure bezeroek baloratzen dute. Ekimen horrek konpainiaren jardueran, gardentasunean eta ekintzetan oinarritutako ebaluazioa egiten du, non Coprecik bilakaera positiboa izan duen.

Gure ustez, klima estrategia osatuago bat garatuta gure enpresa ikuspegi orokorra ere babesten dela, klimaren bide orria gure bezeroekin partekatuz. Funtsezkoa da erakunde gisa klimari eragiten diogun inpaktua murriztea, proiektu sozioenpresarialaren garapenean klima arriskua eta haren aukerak txertatuz, lider izaten jarraitzeko, talentua erakartzeko, ingurune aldakor baterako prestatzeko eta interes taldeen itxaropenak betetzen jarraitzeko, klimarekin dugun konpromisoa sustatuta.

4.1 Hornidura kate eraginkorra, zirkularra eta jasangarria
Kapituluan aipatzen den bezala -, gure aztarna murrizten laguntzen duten proiektuekin aktibo jarraitzen dugu. Bereziki energia arloan, batzorde espezifikoekin, autokudeaketa eta autokontsumoko proiektuekin, eta energiako eta deskarbonizazioko planekin.

Copreci taldearen karbono aztarna

Jarraian aurkezten diren datuek Copreci Taldearen emisioak islatzen dituzte, ton CO₂ eq-tan. Kalkulu horiek GHG protokoloan oinarritzen dira-

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, hiru irismenetako datuak sartzen dira:

- 1 irismena:** instalazio geldikor eta mugikorretako erregaien kontsumoak eragindako zuzeneko emisioak, baita gas hozgarriek eragindako emisio iheskorak ere.
- 2 irismena:** elektrizitatearen kontsumoak eragindako zeharkako emisioak. Merkatuan oinarritutako neurketak dira.
- 3 irismena:** ondasunak eta zerbitzuak erostea, kapital ondasunak, garraioa eta banakaeta uretan gora eta uretan behera, sortutako hondakinak, negozio bidaiak, enplegatuen desplazamendua, produktuen erabilera.

	2025	2024	2024 - 2025 Aldakuntza (%)
1 Irismena (ton CO ₂ eq.)	1.577	1.607	-%1,9
2 Irismena (ton CO ₂ eq.)	10.015	8.381	%19.5
3 Irismena (ton CO ₂ eq.)	1.642.513	1.871.177	-%12,2
Guztira (ton CO ₂ eq.)	1.654.106	1.881.164	-%12,1

Karbono aztarnaren kalkulua 214/2025 Errege Dekretuaren arabera egin da.

Copreci Taldearen karbono aztarnaren ezaugarria da 3 Irismenean eragin handia duela. Horren arrazoia da merkatuan jarritako produktuetako batzuek beren bizitza baliagarrian duten kontsumo elektrikoa, bai eta azken produktuak egiteko behar diren material eta osagai motak ere. 3 irismena nabarmen jaitsi da (%12), erosketa materialen karakterizazio hobearen ondorioz.

1 irismena jaitsi da, baina ez, berriz, 2 irismena, batez ere salmenten igoeraren ondorioz.

Deskarbonizazio plana

Martxoaren 18ko 214/2025 Errege Dekretua betez, Coprecik 2023an bere 2023-2030 Deskarbonizazio Plana garatu eta onartu zuen, SBTi metodologian oinarrituta, eta 2022ko ekitaldiko datuak oinarri hartuta. Plan hori Coprecik jasangarritasunarekin betidanik izan duen konpromisoaren isla da, eta ekonomia jasangarrirako trantsizioarekin bateragarria izateko diseinatuta dago, Parisko Akordioaren helburuekin lerrotatuta. Bere helburu nagusia da emisioak murrizteko xedea identifikatzea, lehenestea eta hedatzea da, horiek gauzatzeko eta jarraitzeko neurri zehatzekin batera, esfortzuak konpainiak jarduteko ahalmen handiena duen esparruetan kontzentratuz eta hornidura kate osoaren zeharkako emisioen gestioa pixkanaka aurreratuz.

Jarraian, emisioak murrizteko konpainiak definitutako helburuak zehazten dira, bai eta horiek lortzeko aurreikusitako jarduera ildoak ere:

Planak ezartzen du **20230erako 1 irismeneko eta 2 irismeneko emisioak %42 murriztea**, emisio horiek Copreci Taldearen kontrol operatiboaren peko iturriei dagozkie-eta.

Helburu horretarantz aurrera egiteko, jarduera ildo nagusietako batzuk dira berokuntza sistemak eta gasa kontsumitzen duten ekipamenduak, hala nola labeak, etengabe hobetzen joatea, bai eta aire konprimituaren sisteman, klimatizazioan eta ekoizpen prozesuetako makinetan hobekuntzak egitea, autokontsumo eta autosorkuntzako proiektuak eta energia berdearen erosketa kudeatzea ere.

Helburu hori Eraginkortasun Energetikoaren Batzordeak gidatzen du, eta, aldi berean, eraginkortasun energetikoaren planean oinarritzen da, plan horren helburu nagusia baita fabrikatutako piezako %3-4 energia gutxiago kontsumitzera iritsi ahal izatea Aretxabaletako plantan.

Dagoeneko abian ditugun eta 2026an planifikatuta dauden neurriekin eta proiektuekin, deskarbonizazio planean ditugun konpromisoetan aurrera egiten jarraituko dugu.

4.3

Berrikuntza/Produktu Jasagarria/Negozio Berriak


Aldaketaren funtsezko pieza izateko proiektuak

Coprecin, berrikuntza eta jarduera berrien garapena gure egungo negozioak indartzeko eta, era berean, tokiko enplegua mantentzen eta sortzen lagunduko duten aukera errentagarri berriak sortzeko palanka bat direla uste dugu.

Horretarako, produktuak eta soluzioak elektronifikatuz (konektibitatea eta softwarea barne) gure proposamenei balio handiago ematen eta haien lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten proiektuak sustatzen ditugu. Jasagarritasuna modu praktikoan lantzen dugu, eta merkatuarekin lerrokatuta, gobernantzan integratuz eta gure bezeroen araudi eta beharrei erantzunez, gure ingurunean industrializatu eta kudeatu ditzakegun ekimenak lehenetsita.

Gure gaitasunak aliantzen eta barruko zein kanpoko partnerren sare batekin osatzen ditugu, garapenak bizkortzeko, katalogoa osatzeko eta jarduera berrietan aurrera egiteko, berrikuntza eta adimen lehiakorreko sistematika batean oinarrituta.

Estrategia horretatik abiatuta, proiektuak lurreratu ditzakegu, hala nola hauek:



INNTRIO

Sukaldeko irisgarritasunaren eta segurtasunaren alde lanean: 40 erabiltzaile aktibo baino gehiagorekin esperientzia pilotu bat egin ondoren eta produktuak jada homologazioak beteta dituela, indukzio sukaldearen merkatura behin betiko jauzi egiteko prestatzen gara, ikusmen desgaitasuna duten pertsonen modu autonomoan eta seguruan kozinatzeak aukera ematen dien sukaldearekin.

[Web](#)

NICHE

Mugikortasun elektrikoa bultzatzea: NICHE-Copreci lankidetzaren industrialeko akordioa itxi da. Egungo soluzioa aztertzen eta egokitzen ari da, lehen ADTSak industrializatzeko, fabrikatzeko eta hornitzeko prest egoteko. Bizikleta elektrikoetarako aldaketa automatikoko sistema bat dira ADTSak.

[Albisteak](#)

HARMONY

Lur arraroetako imanak birziklatzen: Horizon EU proiektu baten esparruan, Copreciren rola da birziklatutako lur arraroetako imanak ontzi garbigailuen motor nagusirako erabili daitezkeen baliozkotzea. Horretarako, ontzi garbigailuetan aplikatzeko bomba hidraulikoa birdiseinatu da, eta prototipoak fabrikatuko dira, horien gainean bezero errearen aplikazioetatik eskatutako entseguak egiteko

[Web](#)

WEEELOOP

Copreci ekonomia zirkularrean aurrera egiten du Life WEEE-Loop proiektuarekin, sukaldeko plaketako materialak eta osagaiak berreskuratuz. Orain arte, 6.400 unitate inguru prozesatu ditu eta 65.000 kg hondakin baino gehiago berreskuratuta dira, bere ingurumenarekiko konpromisoa eta balio kate zirkular berrien garapena indartuz.

[Web](#)

5

Ongizatea eta aberastasuna sortzen
dituen Lan eta Gizarte Eredua

Enplegua sortzen dugu eta langileen ongizatea sustatuko duten kalitatezko lanpostu egonkorrak eskaintzen ditugu.

Kolektibo sozialaren eta, oro har, gizartearen interes orokorrari, kohesio sozialari eta ongizateari ekarpenak egitea eredu kooperatiboaren funtsezko helburuak dira, eta ongizatearen gizartearen baterako eraikuntzan maila handiak lortzen laguntzen duen eredua da.

Aberastasuna ez da soilik kapital finantzarioa oinarrituta neurtzen, kapital sozialean oinarrituta ere neurtzen da, eta etengabe bilatzen da aberastasuna sortzeak pertsonen eta gizartearen kohesioa areagotzea ekartzea. Sortzen duen aberastasuna bidezketasunez sortu eta banatzeko gai den eredua.

Coprecin, pertsonak erdigunean jartzen ditugu; arrakasta, gure ustez, pertsonen eskutik eraikitzen da. Erakundearen lehiakortasuna eta pertsonen garapena eta motibazioa hobetzea bilatzen duten ekimenak bultzatzen ditugu.

2025a ixtean, Copreci Taldearen plantilla aktiboa **1486 langilek** osatzen dute, presente gauden herrialdeetan banatuta, hau da, %3,8 gehiago 2024. urtearekin alderatuta.

Generoaren arabera xehakatuta, plantillaren %56 emakumeak dira (836 pertsona), eta %44 gizonak (650 pertsona).

Copreci Taldeko langileen ia %88k kontratu mugagabeak dituzte.

Enplegatu kopurua, herrialdeen arabera (ekitaldiaren itxieran - 2025/12/31)	2025	2024
ESPAINIA - COPRECI.S COOP	564	520
ESPAINIA - ZARAGOZA	110	115
TURKIA	103	120
TXEKIA	147	138
TXINA	122	124
ITALIA	59	54
MEXIKO	381	360
COPRECI TALDEA GUZTIRA	1.486	1.431

Enplegatu kopurua, sexuaren arabera (ekitaldiaren itxieran - 2025/12/31)	2025.12.31	2024.12.31
Emakumeak	836	788
Emakumeen %	%56	%55
Gizonak	650	643
Gizonen %	%44	+%45
ENPLEGATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA	1.486	1.431

Kontratu mugagabeen eta aldi bate-rakoen urteko batezbestekoa	2025	2024
Mugagabeak	1321	1266
%	%88	%86
Aldi baterakoa	178,4	197,7
%	%12	%14

5.1

Aniztasuna eta aukera berdintasuna. Diskriminaziorik ez.

“Coprecik berdintasunean oinarritutako oinarritzko printzipio kooperatiboak ditu”.

Lan ingurune inklusiboa, diskriminaziorik gabea eta bidezkoa sustatzea, pertsona guztien arteko aniztasunarekiko errespetuan eta aukera berdintasunean oinarritutakoa.

5.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen

Gure **Estatutu Sozialek** atxikimendu askearen printzipio kooperatiboaren inguruan dugun jarrera islatzen dute, besteak beste, genero baldintzengatiko diskriminaziorik ezaren ikuspegiarekin: «Ez dira onarpena ukatzeko arrazoiak izango ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak, ezta eskatzailearen arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila ere, baldin eta helburu sozialarekin bateraezinak ez badira».

Halaber, **Antolakuntza Demokratikoaren printzipio kooperatiboak** bazkide langileen oinarritzko berdintasuna aldarrikatzen du, izateko, edukitzeko eta ezagutzeko eskubideei dagokienez. Horrek esan nahi du enpresaren antolakuntza demokratikoa onartu behar dela, honako hauetan zehaztuta:

- a) Bazkide guztiek osatutako Batzar Nagusiaren subiranotasuna: “pertsona bat, boto bat”.
- b) Gobernu organoak demokratikoki aukeratzea eta, zehazki, Kontseilu Errektorea, Batzar Nagusiaren aurrean organo horiek kudeatzeaz arduratzen dena.
- c) Komunitate osoa eskuordetuz Taldea kudeatzeko izendatutako zuzendaritza organoekin lankidetzan aritzea. Organo horiek behar adina eskumen izango dituzte, beren eginkizuna modu eraginkorrean garatzeko onura ekonomikorako.



Enplegu baldintzei dagokienez, lanpostua betetzeko profil indibidualaren arabekoak izan behar dute, ez ezaugarri edo sinesmen pertsonalen arabekoak. Beraz, kontratazio prozesuetan, ordainsari eta onuretan, sustapenean, diziplinan eta kontratu amaieran ez du diskriminaziorik egingo, arraza, erlijio, sexu, egoera zibil, adin, afiliazio politiko, jaioterri, sexu orientazio edo legeak debekatutako beste edozein arrazoiengatik, hala jasota baitago gure Jokabide Kodean.

Horregatik, lan bizitzan zehar, aukera berdintasuna bizi egiten da. Pertsona eta etengabeko ikaskuntza oinarritzat hartzen dituen sistema denez, garapen profesionala jarduera onaren eta merkatuaren premietara egokitzearen eskutik dator. Giza kualifikazioa eta lanbide kualifikazioa langileen kolektibo osoaren eskura dauden elementu gisa hartuta.

Berdintasun printzipioetako bat, funtsean, langile guztientzat funtsezko onura sozialen kontzeptu berak eskaini ahal izatea da, kontratu edo lanaldi mota edozein dela ere: osasun laguntza, ezintasun eta baliaezintasun estaldura, erretiroaren hornidura, eta familia onurak, hala nola amatasun edo aitatasun baimenak, etab.

Coprecik **2022-2026 aldirako BERDINTASUN PLANA** aktibatuta du, eta plan horretan hiru lan ardatzak definitu dira: Berdintasunezko kultura sustatzen da, aukera berdintasunean oinarrituta eta arriskurik gabeko eta sexuagatiko jazarpenik gabeko lan ingurunea eskainiz.

Nabarmentzekoa da COPRECik berariazko prozedura bat duela ezarrita jazarpen kasuetarako. **“Jazarpen moralari edo sexu arrazoiengatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa”** deitzen da, eta bertan deskribatzen da zer ulertzen da jazarpentzat, zer prebentzio neurri ezartzen dituen eta zer jardute prozedura dagoen horrelako egoera bat gertatzen denerako. Laneko indarkeria eta/edo jazarpen egoerak aztertzeko, ebaluatzeko, arbitratzeko eta, hala badagokio, konpontzeko proposamena egiteko ardura duen batzordea Gatazkak ebaluatzeko eta kudeatzeko batzordea da. Salaketen kanalak salaketaren eta salatzailearen konfidentzialtasuna bermatzen du.

Enplegatu kopurua eta ehunekoa kategoria profesionalaren eta sexuaren arabera	2025.12.31		2024.12.31	
	Núm.	%	Núm.	%
Zuzendari karguak	18		18	
Emakumeak	4	%22	4	%22
Gizonak	14	%78	14	%78
Kualifikatua	568		570	
Emakumeak	162	%28	157	%28
Gizonak	406	%72	413	%72
Kualifikaziorik gabea	891		834	
Emakumeak	666	%75	623	%74
Gizonak	225	%25	211	%26
Kontseilu Errektorea	9		9	
Emakumeak	4	%44	4	%44
Gizonak	5	%56	5	%56

Kontratu mugagabeen eta aldi baterakoen urteko batez bestekoa, generoaren arabera	2025	2024
Kontratazio mugagabea	1321	1266
Emakumeak	752	687,1
Gizonak	569	579,9
Aldi baterako kontratazioa	178,4	197,7
Emakumeak	85,7	112,8
Gizonak	92,7	83,9

5.1.2. Aniztasuna eta inklusioa

Atxikimendu askearen printzipio kooperatiboak, bazkide berrien sarrera ez mugatzeaz gain, aniztasunarekiko errespetua ere esan nahi du. Bere muga bakarra enplegua sortzeko gaitasuna da. Gaur egun frogatzen ari da aniztasuna eta inklusioa (genero, kultura eta beste hainbat alderditan), gai etikoak izateaz gain, lehiarako abantaila lortzeko elementuak ere badirela eta eragin positiboa dutela talentuaren erakarpenean, bezeroarekiko orientazioan, langileen gogobetetzean edo berrikuntzan eta sormenean.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasunari dagokionez, Copreci Taldeak irisgarritasunari buruzko araudia betetzen du presentzia duen herrialde guztietan. Hala, Copreci Taldearen lantegi propio guztiak erabat egokituta daude gaur egun Coprecin lan egiten duten desgaituentzat.

Copreci Taldeak konpromiso handia erakusten du diskriminaziorik ezarekin, desgaituak gizarteratzearekin eta irisgarritasun unibertsalarekin. Hala, 2025eko ekitaldia ixtean Copreci Taldeak desgaitasuna zuten 13 langile zituen (2024an ere 13). Guztiek dute kalitatezko lanpostua, egonkorra eta baldintza berdinetan. Gainera, nabarmentzekoa da Taldea gizarteratze fundazio eta enpresekin elkarlanean aritzen dela, **6. kapituluan (Aberastasuna sortzen dugu, Garapen Komunitarioa bultzatzen dugu) azaltzen den bezala.**

5.1.3. Soldata arrakala saihesten duten oinarritzko printzipioak

“COPRECIn pertsonak egiten dute lan, haien jatorria eta egoera kontuan izan gabe. Eginkizun berdinei ordainsari berdina printzipioa”.

Kooperatiben berezko arauak (bazkide langileei edo kooperatibistei soilik aplikatu dakizkieke), aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboek nahiz enpresa akordioek (bai kooperatiba sozietatearekin, bai Copreci Taldeko beste edozein lantegirekin lan kontratua duten besteren konturako langile guztiei aplikatu dakizkieke) Copreci Talde osoko bazkideen eta besteren konturako langileen gutxieneko ordainsaria arautzen dute, eta antzeko lanpostuen arteko ekitate irizpideak ezartzen dituzte, langile horien generoa edozein dela ere.

Alde horretatik, bai hitzarmenaren mende dauden langileen ordainsariak, bai kooperatibaren barne arauen mende dauden langileenak, lanpostuaren arabera ezarrita daude, eta ez hura betetzen duen pertsonaren arabera; horrela, generoagatiko diskriminazioa saihesten da.

Ordainsaria ezartzeko, barne sorkuntzako eskuliburu batean oinarritutako **metodologia** bat aplikatzen da. Fagor Taldearen barruko inguruko beste kooperatiba batzuekin lankidetzan sortutako eskuliburua da (Lanpostuen balorazio estrukturalerako eskuliburua), urteetan zehar kontrastatua, eta gardentasun eta homogeneotasun osoa bermatzen du, eskualdean desoreka sozial txikiagoa bermatzen saiatuta ere bai. Metodologia hori balorazioan aditua den batzorde batek aplikatzen du. Batzordea Giza Baliabideen arloko profesionalek eta organo sozialetako ordezkariak osatzen dute, prozesuan erabateko gardentasuna bermatzeko.

Matrizearen **ordainsari sistema** erreferentzia metodologikoa da COPRECI Taldeak dituen lantegietarako. Oinarri horiek errespetatuz eta betez, lantoki bakoitza dagokion herrialdearen idiosinkrasiara egokitzen da, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak eta hitzarmenak errespetatuz.

Erreleboko eta gaueko lanaren plusak, antzinasunagatiko plusak eta abar lotuta daude lantegi-herrialde bakoitzeko erreferentziatzeko araudi eta hitzarmenekin, eta betetzen duen lanpostuarekin koherentzia aplikatu behar zaizkio langileari.

Ekitaldi batean egin daitezkeen ordainsarien igoerak lantegiko langile guztiei aplikatu behar zaizkie, ideia politiko, sindikal edo erlijiosoengatik, arrazagatik, hizkuntzagatik, sexuagatik edo egoera zibilagatik inolako diskriminaziorik egin gabe.

Zuzendaritzari ez zaizkio aplikatzen taldeko langileen ordainsari irizpide desberdinak.

Ordainsari finkoaz gain, ordainsari aldakor bat dago. Ordainsari aldakor horretan, hileko kudeaketa operatiboaren emaitza eta urteko helburu estrategikoen lorpena saritzen dira.

Nabarmendu behar da 2025ean urteko helburu horietan eta, beraz, gure kolektibo osoari aplikatu beharreko ordainsari aldakorrean ere egon zela presente jasangarritasuneko palanka transbertsala.

5.1.4. Gizonen eta emakumeen arteko batez besteko ordainsariak

Txosten honetan dago Copreci taldearen 2025 eta 2024 ekitaldietako batez besteko ordainsarien xehakapena, adinaren, sailkapen profesionalaren eta sexuaren arabera banatua, eurotan:

Nabarmentzekoa da batez besteko ordainsaria kalkulatzeko Taldeko enplegatuek ekitaldian jasotako benetako ordainsari gordina -kontzeptu guztiak sartuta- hartzen dela oinarritzat. Hau da Copreci taldeko langile guztiak kontuan hartuta zenbaketa osoa:

	2025		2024	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Batez besteko ordainsaria, sexuaren arabera (euroak)	32.186	19.897	29.979	18.277

Taulan gizonen eta emakumeen artean ikusten den aldeari hainbat errealitatek eragiten diote, batez ere hauek:

Emakume gehiago daude kualifikaziorik gabeko postuetan gizonak baino (emakumeen %75), eta gehienak Espainiatik kanpo.

Datu horri eragiten dio Espainiatik kanpo kualifikatu gabeko emakumeen txandakatze mailak.

Kontseilu Errektorearen eta Goi Zuzendaritzaren ordainsariak lanpostu bakoitzak erakundean duen erantzukizunaren arabera finkatzen dira, Pertsonen Zuzendaritza Politikan adierazitako Ordainsari Politikan ezarrita dagoen bezala.

Ondoren xehatuko da sexuaren arabera bereizita (eurotan).

	2025		2024	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Kontseilu Errektorearen batez besteko ordainsaria ⁽¹⁾ (euroak)	49.680	58.271	37.699	52.366
Goi zuzendaritzaren batez besteko ordainsaria (euroak)	104.949	96.860	92.990	79.586

⁽¹⁾ Kontseilu Errektorea gure gobernu organo gorena da. Kontseilu Errektorea osatzen duten bazkideek ez dute inolako ordainsari finko edo aldakorrik jasotzen lan horrengatik. Kooperatiban egunero egiten duten lanari dagokion ordainsaria jasotzen dute, eta ez dute aparteko ordainsaririk jasotzen Kontseilu Errektoreko kide izateagatik. Gainera, Kontseilu Errektore honetako kideak 2 urtean behin partzialki berritzen dira; beraz, 2025ean berritu dira.

Oharra: Kontseilu Errektorearen eta goi zuzendaritzaren batez besteko ordainsaria kalkulatzeko, abenduaren 31n talde horietan zeuden kideak hartu dira kontuan.

Goi Zuzendaritzako posizioetako batez besteko ordainsarian ikusitako bilakaera positiboak 2023an hasitako antolaketa eraldaketa prozesuari erantzuten dio, eta 2025ean sendotu dira horren ondorioak.

Azpimarratzekoa da prozesu honetan barne sustapenaren aldeko apustua egin dela.

Kontseilu Errektorea, 2025eko maiatzean partzialki berritu da.

Sozietateko lanpostu berdinen edo batezbestekoen ordainsaria

Laneko ordainsariak bat datoz dagokion herrialdeko lan merkatuan daudenekin, eta kasu guztietan hitzarmen edota sektore erreferentziak errespetatzen dira. Copreci Taldeko soldatak bere jardute eremu diren herrialdeetan dauden lanbide arteko gutxieneko soldaten berdina dira eta kasu gehienetan handiagoak dira.

Nabarmendu egin behar da Jokabide Kodean ezarrita dagoela Copreci Taldeak eta haren hirugarren alderdiek, gutxienez, lanbide arteko gutxieneko soldata ordaindu beharko dietela langileei, tokiko legediaren arabera (legeak xedatutakoaren arabera lan egin behar diren orduetan oinarrituta).

Ordainsari arrakala

2025ko eta 2024ko ekitaldiko lanbide kategoriaren arabera soldata arrakala jarraian xehatuko da, lantegien arabera. Horretarako, Copreciren lantegi bakoitzean kualifikatutako eta kualifikatu gabeko langileen soldata arrakalak kalkulatu dira gizonen eta emakumeen artean. Arrakala kalkulatzeko, orduko soldataren kontzeptua erabili da. Arrakalaren datuan ehuneko negatibo batek esan nahi du, kategoriaren barruan, eta batez bestekoa kontuan hartuta, emakumeen taldeak gizonen taldeak baino gehiago irabazten ari dela.

Berdintasun plana diseinatzeko prozesuaren diagnostikoa egiteko garaian, COPRECik gaur egun profil tekniko-teknologikoko ikasketak dituzten emakumeak kontratatzeke dituen zailtasunak nabarmendu ziren, eta horrek eragina izan dezake langile kualifikatuen kategorietan (gutxi gora behera 25-30%). Adibidez, gaur egun, Goi Mailako Prestakuntza Ziklo tekniko-enpresariala ikasi duten emakumeen oso eskaintza txikia dago merkatuan, langile kualifikatuen gure kolektiboaren zati bat izango litzatekeena.

Nolanahi ere, 2024an egiaztatu da Aretxabaletako lantegian langile kualifikatuaren kategorian arrakala apur bat murriztu dela.

Bestalde, ohikoagoa da langile ez-kualifikatuetan soldata arrakala negatiboa izatea, Copreci taldean emakumeen presentzia handia baita horien artean. Langile kualifikatuetan txikiagoa da emakumeen presentzia, nahiz eta, oro har, arrakala maila txikia den. Arrakala handiagoa izatearen arrazoiak historian zehar jarduera arlo batzuetan (lantaldearen osaeran) izan den emakumeen presentzia txikia, lanpostuen espezializazio desberdinak eta antzinasuna dira, batez ere.

Copreci Zaragoza-ren kasuan, gaur egun ez dago gizonezko langilerik kualifikatu gabekoen kategorian.

2025		2024		
Soldata arrakala lantegiko	Enplegatu kualifikatuak	Enplegatu ez-kualifikatuak	Enplegatu kualifikatuak	Enplegatu ez-kualifikatuak
Espainia Copreci Koop. E.	%1,12	-%8,18	%2,25	-%10,4
Mexiko	%16,38	%21,4	%18,75	%14,33
Turkia	-%5,94	-%28,96	%0,77	-%25,09
Txina	%12,16	%7,28	%17,09	%11,26
Italia	%24,83	%9,76	%19,69	%10,97
Txekia	%19,02	%1,91	%22,74	%13,75
Espainia Zaragoza	-20,98	-	-%16,29	-

5.2

Laneko segurtasuna eta osasuna

Osasunaren, segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak betetzen direla bermatzea, arreta berezia jarritz prebentzio ekintzetan eta langileen prestakuntzan, langileen ezbehar tasa eta absentismoa murrizteko.

COPRECI bere langileen laneko segurtasunarekin eta osasunarekin konprometitutako taldea da. Esparru estrategikoaren arabera, Taldearen bilakaera jardueraren esparru guztietan izandako etengabeko hobekuntza prozesuan oinarritu da, pertsonen segurtasunari arreta berezia eskainiz. Horregatik, Taldearen helburua, gai honi dagokionez, istripuen eta gorabeheren kopurua murrizten joatea da.

Hori dela eta, COPRECIn lantoki seguru, garbi eta osasungarri bat ematen die langileei, aplikatu beharreko legeria betez eta, honako hauek bermatuz, gutxienez: edateko ura, osasun instalazioak, suteak itzaltzeko ekipamenduak, instalazio medikoak, larrialdietarako irteerak, segurtasun, aireztapen eta argiztapen ekipamendu egokiak. Halaber, bazkideak eta enplegatuak beren lana modu seguruan egiteko behar bezala prestatuta daudela bermatuko du.

Taldearen Jokabide Kodean Laneko Segurtasunari eta Osasunari lotutako atal espezifiko bat dago. Atal horretan, ezarrita dago Copreci Taldeak eta hirugarren alderdiek laneko segurtasun eta osasunaren arloan legeak xedatzen duena bete beharko dutela. Hain zuzen ere, honako gai hauek jasotzen ditu:

- Suteen prebentzioa
- Istripuen eta gertakarien kudeaketa
- Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko prestakuntza
- Makinen segurtasun elementuak
- Segurtasuneko jarraibideak
- Norbera Babesteko Ekipamenduen (NBE) hautaketa eta erabilera
- Lehen laguntzetarako ekipamendua eta langileen prestakuntza

COPRECIn eta bere hirugarren alderdiek laneko segurtasun eta osasuneko legezko ikuskapenak betetzen dituzte, gobernuaren eta bezeroen ikuskapenen ondoriozko ekintza zuzentzaileak betetzen direla ziurtatuz eta ekintza horiek epe barruan dokumentatuz.

Azpimarratu behar dugu Aretxabaletako plantan (Copreci S.Coop.) laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemen ISO45001 arauaren arabeko ziurtagiria dutela. Gainerako plantetan ez dugu ziurtagiri hori, baina, halere, horietako batzuek Lan Arriskuen Prebentziorako politika espezifikoa dute.

Era berean, Taldeko planta guztietan Laneko Segurtasun eta Osasun Batzorde bat dago, eta enpresaren ordezkariak eta langileek parte hartzen dute bertan, prebentzioko ordezkarien bidez. Bilerak horiek, besteak beste, Taldeak arlo horretan dituen jarraibide guztiak betetzen direla eta segurtasunari eta osasunari buruzko gai guztiei buruzko informazioa, parte hartzea eta kontsulta ematen dela gainbegiratzeko balio dute.

Laneko osasuna eta segurtasuna Copreci Taldearen zutabeetako bat izanik, lantegi guztietako langile berriek, harrera planaren zati gisa, arrisku orokorrei buruzko hasierako prestakuntza jasotzen dute, eta, zehatzago, lanpostuarekin lotutako arriskuei buruzkoa. Gainera, etengabeko prestakuntza bermatzen da, ikastaro espezifiko bidez.

Lan arriskuen prebentzio sistema hobetzen jarraitzeko, planta guztietan auditoriak egiten dira, barrukoek zein kanpokoek eginda.

Copreci Taldearen lantegi guztietan dago laneko segurtasunaz eta osasunaz arduratzen den pertsona bat gutxienez, edo, bestela, kanpoko prebentzio zerbitzu bat dute. Lantegi gehienetan dago zerbitzu medikoa. Arlo hauetan lan egiten da:

- Arriskuen eta aukeren ebaluazioa
- Segurtasuna. Ebaluazioaren ondoriozko prebentziozko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak.
- Istripu tasa
- Higienea
- Ergonomia
- Absentismoa
- Laneko Arriskuen Prebentzioa ekintzetan
- Osasuna. Enpresa osasungarria. Osasunaren zaintza.
- Laneko segurtasun eta osasunaren gaineko prestakuntza

Honako hauek dira 2025eko eta 2024ko lan istripuei buruzko indizeak:

	2025		2024	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Maiztasun indizea*	12,65	12,43	15,50	12,23
Larritasun indizea**	0,30	0,36	0,48	0,39

* (Istripu bajadunen kopurua x 1000000) / Lan egindako ordu kopurua

** (Galdutako egun kopurua x 1000) / Lan egindako ordu kopurua

5.3

Talentua: formazioa, garapena eta erakarpena

Enplegarritasuna, ikaskuntza kolektiboa eta talentuaren erakarpena indartzen duten inguruneak bultzatzen ditugu, proiektu sozioenpresarialarekin lerrokatuta.



Coprecin unibertsitateekin, formazio zentroekin eta eragile teknologikoekin lotura egonkorak sortzen ditugu, proiektura talentu berria hurbiltzeko eta haiekin gure erakunde kultura partekatzeko.

Pertsonei beren ibilbidean zehar ikasteko, hazteko eta gaitasunak garatzeko aukera emango dieten espazioak sustatzen ditugu. Proiektuaren beharrekin lerrokatutako enplegarritasuna, hazkundera eta talentu erakarpena, garapena eta kultura integratuz bide beraren zati gisa, talentua begirada estrategiko eta etorkizunekoarekin zainduz.

Eta ezagutza trukearen kudeaketa indartuz, modu iraunkorrean ikasteko, partekatzeko eta aurrera egiteko gai den erakunde kohesionatua eraikitzen jarraitzeko.

2025ean talentu globala bultzatu dugu, besteak beste Mexikon, Turkian eta Txinan ditugun lantegietan nazioarteko egonaldiak erraztuz. Esperientzia horiei esker, ikasleek eta profesionalak gaitasun berriak eskuratu, ezagutza partekatu eta geografia desberdinetako taldeen arteko lotura sendotu dute.

Gainera, unibertsitate ingurunearekin dugun harreman instituzionala zabaldu dugu, unibertsitatearen eta Copreci proiektuaren arteko lankidetzak estutzeko aukera emanda, formaziorako eta talentu gaztea kaptaziorako aukera berriak irekitzeko.

Ikasleen presentzia ere esanguratsua izan da gure instalazioetan. Urtean zehar hainbat talde jaso ditugu, hala nola profil desberdinetako ikasleak, eta horiek gure eredu kooperatiboa eta negozioa partaidetzatik eta berrikuntzatik kudeatzeko dugun modua ezagutu ahal izan dute.

5.4

Beste gai sozial batzuk eta langileei buruzkoak

Babes soziala

Gizarte laguntza eta aurreikuspena emateko sistema bat dugu, hainbat alderdi garrantzitsu biltzen dituena: erretiroa, alarguntasuna eta ezintasun iraunkorra, enplegurako laguntza, aldi baterako ezintasuna, osasun laguntza edo familia

Pertsonaren ingurunea

Pertsonen bizitzan zuzeneko eta zeharkako ondorioak dituen ingurune egonkor bat sortzen dugu hainbat esparrutan: osasuna, hezkuntza, ingurumena, parte hartzea, kultura, kontsumoa, aurrezkia edo harreman sozialak.

Lanaren antolaketa eta lanean deskonektatzeko neurriak ezartzea

Copreci Taldeak badaki oso garrantzitsua dela lan ordutegiak arrazionalizatzea bizitza profesionalaren eta pertsonalaren arteko oreka bilatzeko. Lantegietan, Taldeak lan bizitza eta familia bateragarri egiteko neurriak ditu, batez ere lanaldi murrizketei eta lanaldi malguei dagokienez.

Aretxabaletako lantegian Telelaneko modalitatearen araudia ere badugu, laneko malgutasunerako neurri berri gisa.

Bulegoetan, bestalde, sartzeko eta irteteko ordutegi malgua dago, eta bazkaltzeko ordutegia nahi duten eran antola dezakete, pertsonen laneko erantzukizunak, norberarenak eta familiakoak modu egokian beren gain hartu ahal ditzaten. Ordutegi malgu hori txandaka lan egiten duten bazkideen eta langileen kasuan aplikagarria ez den arren, lana uztartzeko eta antolatzeko beharren kudeaketa aktiboa aplikatzen da, eskura ditugun tresnekin.

Copreci Taldeak bere bazkide eta enplegatuei lan ingurune osasungarria eskaintzeko eta aisialdiaz gozatzeko aukera bermatzeko lan egiten du.

Copreci Taldeak errespetatu egiten ditu hitzarmenek eta aplikatu beharreko legeriak ezarritako etenaldiak eta atsedenaldiak. Lanaldia, urte osokoa zenbatuta, berdina da bazkide eta enplegatu guztientzat eta, ondorioz, horietako bakoitzak, bere lanpostuaren berezitasunak alde batera utzita, lanaldi bera egiten du urte osokoa zenbatuta.

2025ean, Aretxabaletako plantan 41 pertsonak lanaldi murriztua eskatu eta baliatu zuten, kontziliazio neurri gisa, eta horietatik 18 gizonak ziren.

Zaragozako plantaren kasuan, 9 emakume izan ziren, beste 3 emakume Italiako plantan, eta beste 3 emakume Txekiako plantan. Guztira 56 pertsona lanaldi murriztuarekin Taldean (2024an 46 pertsona izan ziren, eta horietatik 21 gizonezkoak. Zaragozako plantaren kasuan, 9 emakume izan ziren, beste 2 emakume Italiako plantan, eta, azkenik, beste emakume bat Txekiako plantan.

2024an Telelanaren modalitatearen araudia garatzeko batzorde bat sortu zen, eta arrakastaz ezarri dugu. Gaur egun, erakundeko 49 pertsona daude Telelaneko modalitateari atxikita Aretxabaletako plantan (35 lagun aurreko urtean).

Seme edo alaba baten jaiotzagatikoko baimena	2025	2024
Aitatasun/amatasun baimena hartu duten langileak	42	46
Emakumeak	25	25
Gizonak	17	21

5.5 Copreci eta euskara

Eraldaketa sozialaren aldeko apustuaren barruan, euskararen erabilera sustatzeko eta areagotzeko beharrezkoak diren urratsak bultzatzen jarraitzen dugu COPRECIn.

Izan ere, berrogei urte baino gehiago daramagu lanean euskarak gero eta presentzia handiagoa izan duen lan mundu bat posible egiteko. Euskararen Normalizazio Politika bat ezarrita daukagu, eta bertan jasotzen dira lan eremu guztietan jarraitu beharreko hizkuntza irizpideak. Talde naturaletan euskararen erabilera areagotzeko helburuak lantzen ditugu (bilerak, dinamikak, komunikazioak, etab.). Antolaketari dagokionez, euskara bi organo espezifikoren bidez kudeatzen da: jarraipen batzordea eta euskara batzordea.



2025ean, Euskara Planaren ildo estrategikoak zehaztu ditugu, eta 2028ra arteko bidea definitu dugu. 2024an Coprecik Bikaineko goi mailako ziurtagiria lortu zuen eta orain, bikaintasun horretan sakonduz, erronka berriei anbizioz eta ilusioz heltzeko garaia da. Aurtengo oinarri sendoak jarri ditugu: Copreci Taldeko Hizkuntzen Politika berria, Euskara Batzordearen berregituraketa eta GEHI ikerketa abiatu ditugu, besteak beste. GEHI ikerketarekin asmoa da euskara plana aberastea eta Coprecik dituen erronkekin lerrokatzea. 2025ean hasitako proiektuek etorkizuneko bidea markatuko dute.



Barruan egiten den euskararen gestioan eta erabileran eragiteaz gain, Coprecik gizartean ere sustatzen ditu ekimenak eta gizartetik datozenetan ere parte hartzen du. Horren erakusle izan da 2025eko Euskaraldia, euskararen erabilera aktibatze mugimendu sozial erraldoia: 14 Arigune osatu dira, hau da, euskaraz funtzionatzen duten 14 gune, eta 100 pertsona inguruk bat egin dute ekimenarekin. Gainera, EUSKARALDIA girotzeko lantalde bat martxan jarri da, hainbat jardura antolatuz eta herriko lantaldean ere parte hartuz.

6

Aberastasuna sortzen dugu,
Garapen Komunitarioa
bultzatzen dugu

Gizarte Funtsaren bidez, Garapen Jasangarriko Helburuen lortzea bultzatu nahi dugu, eta, zentzu horretan, hainbat eskalatako proiektuak babestu ditugu.

Duela 60 urte baino gehiago sortu ginen komunitatearen beharrei erantzuteko; beraz, gure jatorriak inguruko komunitatean bertan daude errotuta. Gizartearen erronkak gureak ere badira, eta gainerako kooperatibekin, eragile sozialekin eta administrazio publikoekin lankidetzan ari gara, XXI. mendeko erronka zahar eta berrietarako erantzunak bilatzen.

Mende berriak erronka berriak dakartza, eta premiazkoa da lurraldeek, enpresek bezala, jasangarritasunerako trantsizioa egitea. Gure enpresa kooeratiboaren eredua aberastasuna zuzen sortzeko eta banatzeko gai da. Kooperatibek gizarteari egiten dioten ekarpena kualitatiboa, integrala eta epe luzekoa da.

Enpresa jardueratik haratago, jarrera proaktiboa dago eta agerikoa da ingurunearen ongizatean zuzeneko eragile gisa jarduteko dagoen borondatea, izan ere, hurbileko ingurune ko kultura, elkartasun eta ingurumen alderdiak zainduz, pertsonak eta haien lan sektorea osatzen duten alderdiak zaintzen ari dira.

Sortutako aberastasunaren barne banaketa elkartasun adierazpen bat da. Baliabideak birbanatzen ditugu, hainbat funtsen bidez eta ekonomia, ingurumen eta gizarte garapenerako ekimenak bultzatuz, gauden lekuetan.



Copreci eta Mondragon Korporazioa

COPRECI, Mondragon Korporazioko kide den heinean, eta taldearen printzipio kooperatiboetan oinarrituta, eraldaketa sozialaren esparruan ere partekatzen ditu bere gizarte eta enpresa politikan zehaztutako erronka estrategikoak.

Mondragon Korporazioaren 2025-2028 aldirako Politika Sozioenpresarialak **inguruan eragin sozial positiboa sortzeko duen bokazio garbia** jasotzen du:

Gainera, interkooperazioak lehiakorrago egiten gaitu. Urtero, eta oro har, MONDRAGONeko kooperatiba guztiek beren emaitza positiboen %5 ematen dizkiote MONDRAGON Fundazioari, Kohesio eta Garapen Funtsa eratzeko, MONDRAGONen esperientzia kooperatiboaren kohesioa eta garapena ahalbidetuko duten proiektuak garatzeko. Funts horren helburua da bideragarritasun analisiak egitea edo I+G+B proiektuak finantzatzea, besteak beste. Era berean,

eta oro har ere, emaitza positiboen portzentaje baten pareko ekarpenak egiten dira urtero, inbertsio gisa, MONDRAGON Inversiones, S. Coop.ek kudeatutako nazioarteko hedapen funts korporatibo bat eratzeko. Baliabide horiek kooperatibei nazioarteko hedapen eta hazkunde prozesuetan laguntzeko erabiliko dira, bai eta enpresa proiektuak bultzatzeko edo kooperatiben ondare egiturak indartzeko ere, besteak beste.

Ikuspegi 1

“Munduko erreferente kooperatiboa izatea lankidetzaren indarraren bidez gizartea eraldatzen duten pertsonekin.”

Erronka 1

“Lidergo posizioak lortzea, lehiakorragoak, kooperatiboagoak eta aldaketekin bizkorragoak izanik, eraldaketa sozialerako funtsezko eragile izateko.”

4 ardatz estrategiko

- 01 Konpromisoa eta nortasun kooperatiboa (gure balioak bizi)
- 02 Etorkizuna duten negozioak (ondarea hobetu)
- 03 Irekiera eta inpaktu soziala (Mundura irekiak eta ingurunearekin konprometituak)
- 04 Lankidetzaren biderkatzea (biderkatzeko batu)

Copreci eta Fagor Taldea

Copreci, era berean, Fagor osatzen duten bederatzi kooperatibetako bat da, eta kooperatiba horietako bakoitza erreferentea da jardute eremu duten sektoreetan. Gaur egun Mondragon Korporazio izenez ezagutzen den talde kooperatiboaren sorburu gara.

Fagor Taldeak jasangarritasunarekin duen konpromisoa ez da gure kooperatibetara mugatzen, eta, horregatik, jasangarritasunerako trantsizioa bultzatzeko konpromisoa hartu dugu, gure kooperatibak kokatuta dauden lurralde eta komunitateekin lankidetzan estuan.

COPRECI. S. Coop.ek Eraldaketa Sozialeko Batzorde bat du, non Kontseilu Errektoreko, Kontseilu Sozialeko eta Zuzendaritzako kideak eta bazkide boluntarioak elkartzen diren, alde batetik, FAGOR Taldeak garatutako eraldaketa sozialeko proiektuen jarraipena egiteko, eta, bestetik, Coprecik berak proposamenak lantzeko, komunitateko elkarte batzuek aurkeztutako jarduerak edo proiektuak sustatzeko.

Sustapen eta Heziketa Kooperatiboko Funtsak (IPDK)
Taldea osatzen duten kooperatiben urteko irabazien %10ekin elikatzen dira, hori baita Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen duenaren arabera egin behar duten ekarpena. Gainera, COPRECik beste %2 gehiago bideratzen du funts horretara, eraldaketa sozialarekin dugun konpromiso irmoaren erakusgarri.

Hau da Copreci S.Coopek 2025ean Sustapen eta Heziketa Kooperatiboko Funtsetara bideratu duen zuzkidura:

	Fagor Taldea	Copreci
Urteko irabazien %10, eta kopuru horretatik:		
%20 Mondragon Korporazioaren FEPI funtsera (Kooperatiba arteko Hezkuntza eta Sustapen Fondoa) bideratzen da.	779.262 €	61.667 €
Gainerakoa (%80) dagoen IPDK funtsera bideratzen da. Funts horren zati bat Fagor Taldearen mailan kudeatzen da, eta beste zati bat kooperatibak berak.	3.139.022 €	246.667 €
Urteko irabazien %2, ekarpen gehigarri gisa, Fagorren eraldaketa sozialerako funtsera	782.467 €	61.667 €
2025eko zuzkidura guztira	4.700.751 €	370.000 €

Jarraian, **Fagor Taldearen Funts Sozialaren edo IPDKren** banaketa erakusten da, non Garapen Jasangarriko Helburuen lorpena bultzatu nahi dugun, eta, ildo horretan, hainbat eskalatako proiektuak lagundu ditugu:

- Fagor komunitatea
- Debagoiena
- Euskal Herria
- Mundua

2025ean, COPRECik **246.667 euro** jarri zituen Fagor Taldearen IPDK funtserako, hainbat esparrutan dauden beharrei erantzuteko eta gizartearen hainbat proiekturi / eragileri laguntzeko (142.200 euro 2024an). Fagor Taldeak 3.139.022 euroko ekarpena egin zuen guztira (2.986.569 eurokoa 2024an).

(milaka eurotan)	2021	2022	2023	2024	2025
Fagor Taldearen IPDK funtsa	1.076	2.410	2.348	2.986	3139
Copreci S.Coop.en ekarpena	183	428	132	142	246

Barruko arauak erreferentziazat hartuta, erabaki zen 2025eko funtsak honela esleitzea eremu guztiei:

Fagor Taldeko 2025eko IPDK funtsen banaketa

Kooperativa	Erabilgarria guztira	Hezkuntza sustapena %25	Sustapen sozial eta kooperatiboa (60-65) %65				Distribuzio komunitarioa (10-15) %10	
		784.755€	2.040.364 €				313.902€	
		Hezkuntza kooperatiboa %25	Gizarte Berrikuntza Plataforma %25	Euskararen Normalizazioa (20-25) %24	MUNDUKIDE (10-12) %10	Interkooperazioa/koop.sustapena (3-7) %6	Gizarte Eraldaketa proiektuak kooperatibetan (2-7) %2	Kooperatibak %8
Copreci	246.667 €	61.667 €	61.667 €	59.200 €	24.667 €	14.800 €	4.933 €	19.733 €
Guztira	3.139.022 €	784.755 €	784.755 €	753.365 €	313.902 €	188.341 €	62.780 €	251.122 €

Fagorreko pertsonak Garapen Jasangarriko Helburuetan inplikatzeari buruz

Hauek dira arlo honetan bultzatu ditugun ekimen nagusiak:

FAGOR EUSKARAZ

20 urte baino gehiago daramatzagu gure kooperatibetan euskara planak bultzatzen, pertsonak euskaraz lan egin ahal izan dezaten.

Oro har, Taldearen zein kooperatiben euskara biziberritzeko planak eta horietan zehaztutako ekintzak finantzatzeko ekimenetara bideratu dugu partida.

Guztira, 753.365 euro, Fagor Taldeak jarriak, eta diru horretatik **59.200 euro izan dira Coprecik 2025ean egindako ekarpena.**

FAGOR ELKARREKIN

Pertsonak Garapen Jasangarriko Helburuetan inplikatzeko dinamikak eta ekimenak sustatzen ditugu. Horien artean daude elkartasun kanpainak, gizarte erakundeekin lankidetzak dinamikak, lan boluntarioak, etab.

Hauek izan dira 2025eko ekintza nagusiak:

Boluntariorik gabeko kanpainak: First Lego League eta Mundukide ekimenetan, esaterako, boluntario gisa parte hartzeko.

Elkartasun kanpainak sustatzea: Errigora, Harreman eta Mundukide erakundeekin, esaterako, lankidetzan aritzea bultzatzen jarraitu dugu.

Zaporeak elkarrekin elikagaiak biltzea, 1.400 kg elikagai bilduta.

EITB Maratoiari 12.000 euro ematea, gaixotasun kardiobaskularrak ikertzeko

FAGOR MUGI

Mugikortasun planen bidez bultzatzen dugu lantokirako joan-etorriak modu jasangarrian egitea, besteak beste bizikleta, garraio publikoa eta auto partekatua erabiltzea sustatuz.

2025ean 470.242 kilometro modu jasangarriagoan egin ditugu, 52.681 kg Co₂ gutxiago igorrita.

Guztira, 56.878 euro, Fagor Taldeak jarriak, eta diru horretatik **4.933 euro dira Coprecik 2025ean egindako ekarpena.**

Garapen jasangarria bultzatzea Debagoiena eskualdean

Gure kooperatibetako ekoizpen zentro gehienak Debagoienan daude; beraz, Fagor Taldeak konpromiso berezia du eskualdearekin. Hauek dira arlo honetan bultzatu ditugun ekimen nagusiak:

DEBAGOIENA 2030

Debagoiena eskualdeko trantsizio jasangarria bultzatzeko diseinatutako lankidetza sarea da Debagoiena 2030, eta honako arlo hauetan jarduten du:

- Energia trantsizioa.
- Mugikortasun jasangarria eta adimenduna.
- Elikadura subiranotasuna eta tokiko ekoizpena.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzea eta berreskuratzea.
- Gizarte kohesioa eta laneratzea.

2025ean energia komunitateen sustapena indartu dugu, edo Debagoieneko jantoki kolektiboak tokiko produktuekin hornitzeko proiektuak, edo espazio publikoen mugikortasun eta erabilera modu berriak sustatzeko proiektuak.

Guztira, **784.755** euro, Fagor Taldeak jarriak, eta diru horretatik **61.667 euro dira Coprecik 2025ean egindako ekarpena.**

FUNDACIÓN GIZABIDEA

Gizabidea Fundazioaren bidez, 40 urte baino gehiago daramatzagu lurraldeko hezkuntza eragile kooperatiboekin lankidetzan, eskualdean kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegituren finantzaketan laguntzeko.

Guztira, **784.755** euro, Fagor Taldeak jarriak, eta diru horretatik **61.667 euro dira Coprecik 2025ean egindako ekarpena.**

Euskal Herriaren garapen jasagarria bilatzen duten proiektuak babestea

FAGOR HERRIGINTZA

Garapen Jasagarriko Helburuei erantzun propio eta berritzaileak eskaintzen dizkieten proiektuak laguntzeko diseinatutako lankidetzeta programa da Fagor Herrigintza.

2025ean programaren hirugarren edizioa egin dugu, eta 38 proposamen jaso ditugu. Horietatik 3 aukeratu dira:

60.000 euro. ARIZARI HEKUNTZA ELKARTEA. Mugarik gabeko ikasgelak, Arizmendi ikastola: ikastetxeetan baja emandako ekipo informatikoak berritu eta Maroko, Sahara eta Senegalgo eskoletara eramateko proiektua.

40.000 euro. HAIZE BERRI AISIALDI ELKARTEA. Aniztasun funtzionala duten gazteek aukera berdintasunean aisialdirako eta kulturarako sarbidea izan dezatela bermatzeko ekimena.

20.000 euro. SHIFA ELKARTEA. Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetara espedizioa, arreta medikoa eta material sanitarioa emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko beste proiektu batzuk

Fagor Herrigintza programatik harago, Fagor Taldeak 2025ean ere laguntza eman die Euskal Herri mailan jarduten duten beste elkarte eta erakunde batzuei, lurraldearekin dugun konpromisoa indartuta.

Guztira, 149.146 euro, Fagor Taldeak jarriak, eta diru horretatik **14.800 euro dira Coprecik 2025ean egindako ekarpena.**

Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzak

FUNDACIÓN MUNDUKIDE

Mundukidek, batez ere, Mozambiken eta Brasilen garatzen du bere lana, eta urteak daramatza, filosofia kooperatiboarekin bat etorriz, bere komunitateen garapen endogenoa sustatzen.

Bere jarduera finantzatzeaz gain, gure kooperatibetako bazkideek aukera dute Mundukidek programak dituen herrialdeetan kooperante gisa parte hartzeko.

GARABIDE

Garabide hizkuntza biziberritzeko prozesuetan lan egiten duen erakundea da, beste herrialdeetako hizkuntza gutxituetako komunitateekin euskara berreskuratzeko esperientzia partekatuz.

Guztira, 313.902 euro, Fagor Taldeak jarriak, eta diru horretatik **24.667 euro dira Coprecik 2025ean egindako ekarpena.**

Tokiko elkarten sustapena

IPDKren zati bat Copreciren plantak dauden herrietako elkarten jarduera diruz laguntzera bideratzen dugu. Jarraian, COPRECik 2025ean bultzatutako horrelako proiektu sozialen zerrenda sartu da.

Gainera, Coprecik, azken urteetan garatzen ari garen programa baten barruan, beste **4.933€** bideratu zituen **interes pertsonaleko formazio kontzeptu gisa**. Copreci Taldeko langileentzako laguntza espezifiko bat da, profesionalki garatzeko ez ezik komunitateari egiten dioten ekarpena sustatzeko beren kabuz ikastea bultzatu nahi dutenentzat, zehazki.

Proiektua	Azalpena	Copreci
Copreci Mexiko (NEAPI)	NEAPI proiektua, Chiapasko haur, gazte eta familientzako hezkuntza proiektua	1.700 €
GuHaziakGara laguntza elkarte	Bazterketa arrisku egoeran bizi diren pertsonak gerturatzeko topaguneak sortzen dituzte, emakumeengan interes berezia jarrita.	1.300 €
Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldea	Arrasateko Gimnasia Taldea	350 €
Arrasate Eskubaloï Taldea	Arrasateko eskubaloï taldea	350 €
Arrasate Pilota Taldea	Arrasateko pilota taldea	350 €
Arrasate Rugby Taldea	Errugbya ezagutu eta Oñati, Antzuola, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Arrasateko jokalariekin errugbiaz gozatu nahi duen edonori zuzendutako proiektua. Luma Gabeko hegoak proiektua.	650 €
Arrasate Saskibaloï Taldea	Arrasateko saskibaloï taldea	650 €
Patin Sakana Irristaketa Taldea	Nafarroako indoor irristaketa txapelketa antolatzen dute	350 €
Debatea (Autismoa Debagoiena)	Bere misioa da Debagoieneko autismoa ezagutaraztea eta autismoa duten haur, nerabe eta helduei laguntza eskaintzea. DebaTEA (TEA: Espekro Autistaren nahasmenduak	1.000 €
Ortzadar Elkarte	Muga adimena duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte	450 €
Loramendi Elkarte	Aretxabaletako Euskara Elkarte.	750 €
AMS Mundu Solidarioa	AMS - Mundu solidario baten aldeko aktiboak. Elkartearen misioa da Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzea haien garapenerako, eta gure ingurua garapenererako sentsibilizatzea eta hezte	2.000 €
Ndank Ndank / Gazte Ndank proiektua	Senegaldarrek eta euskaldunek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarte. Bi komunitateen arteko interakzioa eta komunikazioa bultzatzen dugu, kulturartekotasunaren balioa goraiatzuz	1.550 €
Sos Arrazakeria Gipuzkoa	Bere helburua da gizarte bateratu eta arrazakeriarik gabekoa lortzea.	450 €
Batera Guraso Elkarte	Aretxabaletako Kurtzebarri BHlko guraso elkarte	350 €
Gurabarrri Guraso Elkarte	Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako lehen hezkuntzako guraso elkarte	350 €
Kukumiku Guraso Elkarte (Aretxabaleta)	Kukumiku Haurren Garapenerako Elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte da, 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten hainbat familiak osatua	350 €
Leizarra Musika eta dantza eskola	Aretxabaletako musika eta dantza eskola	650 €
Ereindajan	Ereindajan Elkarteak 720 bazkide baino gehiago ditu Debagoienan. Bertako nekazaritza garapena bultzatzeaz gain, lehen sektorearen jasangarritasunetik, agroekologiatik eta elikadura burujabetzatik, haraneko baserritarren produktuak kontsumitzeko aukera eskaintzen die herritarrei, besteak beste.	750 €
Goienagusi	Goienagusi irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta Debagaraian bizi diren 55 urtetik gorako pertsona guztientzat jarduerak antolatzea du helburu, zahartze aktiboa ahalbidetzeko, horrek bere bizi kalitatea hobetzeko dakartzan onurekin.	450 €
GUZTIRA		14.800 €

Coprecik laguntzen jarraitzen du bera dagoen lekuetan

Txekian dugun lantegia 1.000 biztanle pasatxoko herri batean kokatuta dago, eta lantegi horrek modu estuan laguntzen du herri horretako jardueretan, hala nola haur futboleko tokiko taldeari, haur dantzako elkarteari eta udalak antolatutako beste ekitaldi batzuei laguntza ematen.

2025ean bultzatutako proiektu sozialetako bat Chiapasko haur, gazte eta familientzako NEAPI Hezkuntza Proiektua izan da, eta Copreci Mexikon ditugun lankideen interesagatik eta babesagatik ezagutu da proiektu hori Coprecin.

Coprecin ditugun langileek 2025eko proiektuetan izan duten parte hartzea:

Aurten ere Copreciko langileek Lesbosen errefuxiatuta daudenentzat janaria biltzeko kanpainan parte hartu zuten, Zaporeak elkartearen eskutik.



Aurten ere Coprecik [Mundukide Fundazioaren](#) IX. Lasterketa Solidarioan parte hartu zuen. Ekitaldiaren bidez bildutako dirua Mundukidek Afrikan eta Hego Amerikan egiten dituen lankidetzaren programetan inbertituko da.

Ekitaldian zehar, Coprecik lekukoa hartu zuen eta hurrengo bi urteetan lasterketa antolatzen laguntzeko konpromisoa hartuko du.

7

Txostena egiteko prozedura

Dokumentu honek COPRECIREn Informazio Ez Finantzarioaren Egoera aurkezten du, honako hauek ezarritako eskakizunekin bat etorriz: 11/2018 Legea, abenduaren 28koa, Merkataritza Kodea aldatzen duena; Kapital Sozietateei buruzko Legearen testuategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; eta 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzari buruzkoa, informazio ez finantzarioari eta aniztasunari buruzkoa. Era berean, Taldearen Jasangarritasun Memoria gisa aurkeztu da (urterokoa).

Txostena, COPRECI Taldearen bilakaera, emaitzak eta egoera eta bere jarduerak 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra ingurumen, gizarte eta ekonomia gaitan duen inpaktua ulertzeko behar den informazioa jasotzen duena, GRI Estandarrak metodologiaren arabera egin da, Funtsezko aukerarekin bat etorriz, eta COPRECIREn bere interes taldeei ematen dien garrantzia eta jasangarritasunaren alde egiten duen apustua adierazten ditu, Taldearen jardura ekonomikoa garapen sozial eta ingurumenekoa denboran jasangarria izatea ahalbidetzen duten oinarritzko printzipioekin lerrokatuta egotea bermatzeko, aldi berean Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuetan lagunduta.

Txosten hau egitea gardentasunez jokatzeko eta kontuak emateko modua da argi eta garbi, eta, hori ez ezik, kudeaketa prozesuak eta Taldearen estrategia hobetzen ere laguntzen du, epe laburrean eta ertainean gauzatu ahal izango diren hobekuntza aukera berriak identifikatuz.

Txostena egiteko prozesuan Gerentziak eta COPRECIREn arlo nagusietako arduradunek parte hartu dute zuzenean, baita Taldeko Kontseilu Errektoreko lehendakariak ere, bazkideen ordezkari gisa.

Sartu den informazio guztia enpresa matrizearena eta COPRECI Taldea osatzen duten eta kontu bateratuetan aintzat hartu diren filial guztiena da, Copreci Egypt filialarena kenduta.



7.1 Gai materialak definitzeko prozesua

Materialtasun Bikoitzaren analisiak erakundeari ahalbidetzen dio erakundearen barne eta kanpoko testuinguruarekin bat datozen hainbat gai material lortzea. Horregatik, emaitza mugatua da, eta Copreciko urteko errealitateari erantzuten dio. Gai hori kontuan hartuta, urtero berrikusi egiten da ikusteko ea merkatu edo antolaketa aldaketek emaitzak aldatu ahal izan dituzten, ekitaldien arteko konparazioa ahalbidetuta.

Prozesua honako fase hauetan antolatu zen:

1. fasea ASG TESTUINGURUA



Negozio estrategia
eta eredu



Balio katea eta
interes taldeak



ASG araudiak



ASG arrisku globalak
eta sektorialak



ASG joerak

2. fasea INPAKTU, ARRISKU ETA AUKERAK IDENTIFIKATZEA



ASG adituek,
testuinguruaren analisiaren
bidez, inpaktu, arrisku eta
aukeren lehen zerrenda
bat egiten dute



Bilerak taldearekin, ebaluatu
beharreko inpaktu, arrisku
eta aukeren zerrenda
doitzeko eta baliozkotzeko

3. fasea INPAKTU, ARRISKU ETA AUKEREN EBALUAZIOA



Parte hartze saioa COPRECI
kooperatibako finantza
taldearekin, arriskuak eta
aukerak ebaluatzeko



COPRECI kooperatibako
taldearekin baliozkotzea,
inpaktuak ebaluatzeko

4. fasea INPAKTU, ARRISKU ETA AUKERA MATERIALAK BALIOZKOTZEA



Inpaktu
materialtasunaren eta
finantza materialtasunaren
emaitzak COPRECI
kooperatibako
jasangarritasun taldearekin
baliozkotzeko azken saioa

1. fasea

ASG TESTUINGURUA


Materialtasun Bikoitzaren analisia erakundeak lan egiten duen ingurunearen eta bere balio katearen azterketa zehatz batetik abiatuta hasten da, balio katea osatzen duten fase guztiak identifikatuz eta desagregatuz eta eragiketa propioetan zein uretan gora eta behera balio katean inplikaturako jarduerak, sektoreak, eremu geografikoak eta interes taldeak gehituz.

Irismena definituta, Mondragon, Fagor Taldea eta Copreciren negozio eredua eta estrategia aztertu ziren, bere berezitasunei erreparatuta. Modu osagarrian, merkatuaren testuinguruaren kanpoko azterketa egin zen, arrisku sektorialen azterketa, Munduko Ekonomia Foroaren urteko txostenetik abiatuta arrisku globalen ebaluazioa eta indarrean dauden ESG joera eta marko normatiboak barne (jasangarritasunean espezializatutako erreferente eta preskriptoreetan lagunduz).

Gaur egun, ESG dinamikek adimen artifizialak eta digitalizazioak bultzatutako aurrerapen teknologiko handia islatzen dute, eta jasangarritasunean egindako aurrerapenak, berriz, modu mailakatuagoan eboluzionatzen dute berriztagarrien, erregulazioaren eta nazioarteko akordioen bidez. Aldi berean, mehatxuekiko kezka, hala nola zibersegurtasuna eta desinformazioarekikoa, areagotzen da, tentsio geopolitikoek ekonomia globala eta kate logistikoak baldintzatzen jarraitzen duten testuinguruan. Aldi berean, gizarte eta ingurumen sentsibilizazioak hazten jarraitzen du, muturreko fenomeno klimatikoen maiztasunak eta ekosistemetan eta bizi kalitatean dituzten ondorioek eraginda.



Negozio estrategia
eta eredua



Balio katea eta
interes taldeak



ASG araudiak



ASG arrisku globalak
eta sektorialak



ASG joerak

1. fasea

ASG TESTUINGURUA

Balio katea eta interes taldeak


		Fase 1	Fase 2	Fase 3	Fase 4	Fase 5	Fase 6	Fase 7
FASES		Innovación, diseño y desarrollo	Aprovisionamiento (Materias primas, componentes, subconjuntos, productos, servicios, etc.)	Producción de componentes, producto final y/o servicios	Venta, distribución a clientes y servicio post-venta	Fabricación del producto final de clientes, distribución y venta al consumidor final	Uso del producto	Fin de vida útil
	ACTIVIDADES PRINCIPALES	Engloba el conjunto de actividades de innovación, investigación y desarrollo llevadas a cabo para cubrir las necesidades del cliente, y con el objetivo de detectar nuevas propuestas de productos o servicios que puedan crearse. Incluye los procedimientos de conceptualización, diseño y desarrollo de los componentes, producto final o servicios, según sea el caso. Esta fase también comprende la identificación de las necesidades del cliente.	Engloba la compra y aprovisionamiento de materias primas, componentes, subconjuntos, productos, servicios, etc. Tiene en cuenta la extracción y adquisición de materias primas tanto de los proveedores directos, como indirectos de las cooperativas. También incluye la distribución y el transporte de las materias primas hasta las cooperativas y sus filiales comerciales.	Incluye los procesos industriales para la fabricación de componentes, producto final y/o servicios por parte de las cooperativas.	Esta fase incluye el conjunto de actividades que permiten la venta y distribución de componentes, productos o servicios a los clientes. Se promueve el posicionamiento de la marca y se impulsa el establecimiento de nuevas relaciones comerciales y alianzas. También se llevan a cabo tareas de servicio post-venta incluyendo el recambio de piezas.	Esta fase aguas abajo engloba la fabricación, distribución y venta por parte de una entidad distinta a Copreci, pero relacionada con la cooperativa debido a su necesidad de componentes, productos o servicios. En esta fase se fabrican productos finales por parte de clientes de sectores muy variados (cocinas, lavadoras, barbacoas, estufas, etc.). Afecta a las cooperativas involucradas en procesos “business to consumer (BTC)”, es decir, que desarrollen componentes o soluciones que requieran un ensamblaje o transformación posterior por parte del cliente. Finalmente se distribuyen y venden al consumidor final.	Incluye el uso de componentes, producto final y servicios, así como su mantenimiento.	Engloba actividades de gestión del final del ciclo de vida de los productos, incluido el reciclado.
GRUPOS DE INTERÉS AFECTADOS O QUE PUEDEN AFECTAR A ESTA FASE		Cientes Colaboradores y alianzas Comunidad y agentes locales Órganos de gobierno Personas trabajadoras Entidades financieras Administración pública	Proveedores Clientes Administración pública	Cientes Colaboradores y alianzas Comunidad y agentes locales Órganos de gobierno Personas trabajadoras Entidades financieras Administración pública	Cientes Órganos de gobierno Personas trabajadoras Administración pública	Cientes Consumidor final Comunidad y agentes locales Administración pública	Consumidor final Clientes Comunidad y agentes locales Administración pública	Consumidor final Clientes Comunidad y agentes locales Administración pública

2. fasea


INPAKTU, ARRISKU ETA AUKERAK IDENTIFIKATZEA

Deskribatutako ESG testuingurutik abiatuta, Fagor Taldeak hainbat inpaktu, arrisku eta aukera (IAAk) identifikatu zituen, aurrez ebaluatutako faktore bakoitzerako, hala nola kokapen geografikoa, harreman komertzialak eta horien eragina, bai eta garatutako jarduera espezifikoak eta horietarako beharrezkoak diren baliabideak ere.

Prozeduraren ondorioz, Taldeak IAAen long list bat egin zuen, ESGko 101 inpaktu, arrisku eta aukerek osatua bere balio katean zehar, horietatik 40 inpaktuak (26 negatiboak eta 14 positiboak) eta 61 arriskuak eta aukerak (48 arriskuak eta 13 aukerak). Hasierako zerrenda hori kooperatiba bakoitzera lurreratu zen ondoren, eta bertan Coprecik 30 inpaktu (19 negatibo eta 11 positibo) eta 32 arrisku eta aukera (26 arrisku eta 6 aukera) identifikatu zituen bere jarduera industrial espezifikora egokituta.



ASG adituek,
testuinguruaren analisiaren
bidez, inpaktu, arrisku eta
aukeren lehen zerrenda
bat egiten dute



Bilerak taldearekin, ebaluatu
beharreko inpaktu, arrisku
eta aukeren zerrenda
doitzeko eta baliozkotzeko

3. fasea

INPAKTU, ARRISKU ETA

AUKEREN EBALUAZIOA

Coprecik ESG gaiei buruzko 62 inpaktu, arrisku eta aukeren zerrenda ebaluatu zuen balio katean. Horietatik 30 inpaktuak izan ziren (19 negatiboak eta 11 positiboak) eta 32 arrisku eta aukerak (26 arriskuak eta 6 aukerak). Ondoren, inpaktuaren materialtasunerako eta materialtasun finantzarioako (arriskuak eta aukerak) ebaluatutako faktore nagusiak zehazten dira.

Inpaktuaren materialtasuna: inpaktu bakoitzaren probabilitatea eta larritasuna (eskala, irismena eta izaera konponezina) ebaluatu ziren.

Materialtasun finantzarioa: gertatzeko probabilitatea eta magnitude potentziala ebaluatu ziren, arriskuen eta aukeren balizko efektu finantzarioak kontuan hartuta.

ESRS gaiak	Inpaktu materialtasuna		Finantza materialtasuna	
	Positiboa	Negatiboa	Positiboa	Aukera
E1 — Klima-aldaketa				
E2 — Kutsadura				
E3 — Ura eta itsas baliabideak				
E4 — Biodibertsitatea eta ekosistemak				
E5 — Ekonomia zirkularra				
S1 — Bertako langileak				
S2 — Balio kateko langileak				
S3 — Eragindako komunitateak				
S4 — Azken kontsumitzaile eta erabiltzaileak				
G1 — Enpresa jokabidea				

 Materiala

 Ez materiala

4. fasea

INPAKTU, ARRISKU ETA AUKERA MATERIALAK BALIOZKOTZEA

Materialtasun Bikoitzaren Analisiaren metodologia eta ikuspegia arloko adituek eguneratu zituzten, EFRAGen jarraibideei jarraituz, Fagor Taldearen Materialtasun Proiektuko Taldearekin lankidetzan, erakundearen errealitatean behar bezala ulertzen eta aplikatzen dela ziurtatzeko. Lortutako emaitzak 2024ko azaroaren 14an aurkeztu zitzaizkion Zuzendaritza Batzordeari, goi zuzendaritzak berrikusteko eta baliozkotzeko. Era berean, arriskuak ebaluatzeko arduradunen eta interes taldeen iritzia jaso zen, hobetzeko aukerak eta prozesuan izan daitezkeen doikuntzak identifikatzeko.



Inpaktu materialtasunaren eta
finantza materialtasunaren
emaitzak COPRECI kooperatibako
jasangarritasun taldearekin
baliozkotzeko azken saioa

7.2

11/2018 Informazio Ez-Finantzarioaren Legearen eskakizunen erreferentzia taula eta Global Reporting Initiativeren edukiak (GRI adierazleak)

Informazio Ez-Finantzarioaren 11/2018 Legearen edukiak	Erabilitako estandarra (GRI)	Atala	Oharrak
Informazio orokorra			
